


Euskal Autonomia Erkidegoko industriak %9,1eko hazkunde nominala izan zuen 2004. urtean

Eraikuntzak, aurreko urteetan bezala, %10,3ko hazkundea izan zuen

EUSTATen datuen arabera, 2004. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektorearen bilakaera azeleratu egin zen: urteko tasa nominala %9,1ekoa izan zen, hau da, 2001etik 2003ra bitarteko aldian lortu ziren neurrizko emaitzak baino askoz tasa altuagoa izan zuen sektore horrek. Suspertzeko bultzada hori energiaren eta siderurgiaren sektoreen ondorioz eman zen.

Industrian gero eta enplegu gehiago egon da, baina gehitze horren erritmoa moteltzen joan da. 2003. urtean %1,2 gehitu zen eta 2004. urtean ere gehitu arren tasa txikiagoarekin izan zen, %0,9. 1994. urtean industrian 192.274 langile zeuden eta 2004. urtean, hamar urte igarota, 251.179 pertsona zeuden sektore horretan lanean; beraz, urte batetik bestera 58.000 langile gehiago izan zen sektorean lanean, edo beste era batera esanda, hamarkada batean sektoreko okupazioa %30 gehitu zen.

Industri sektorearen bilakaera. 1997- 2004. Hazkunde-tasak (%)



Iturria: Eustat

Jarraian, 2004. urtean industriaren bilakaerak izan dituen eragile azpimarragarrienak zehazten dira:

- Industri sektorearen suspertzea (%9,1eko nominala) energiaren sektoreek (petrolioaren birfinketa, energia elektrikoa, gasa eta ura) eta metalurgia eta gai metalikoek eragin dute; izan ere, sektore eragile hauek nabarmen gaitzen dute

batez besteko hazkunde-tasa. Euskal Autonomia Erkidegoan hain garrantzitsuak diren garraio-materialen (%3,3), makinariaren (%4,2) eta material elektrikoaren (%5,6) sektoreek emaitza neurrizkoagoak izan zituzten balio erantsiaren urteko bilakaeran. Hala ere, emaitza horiek positiboak izan ziren.

- Baina sei sektorek bilakaera negatiboa izan zuten 2004. urtean: industria ez metalikoa (%-5,4), zuraren industria (%-2,9), larruaren eta oinetakoaren industria (%-2,8), beste manufaktura batzuk (%-1,3) eta industria kimikoak (%-1,0).
- Ustiapeneko soberakin gordina %12,8 gehitu zen eta langileen kostuak %6,5. Energiaren eta metalurgiaren sektoreak izan ziren gehikuntza handiena izan zutenak urte horretan, bai enpresa-soberakinetan bai langileen kostuetan. Gehikuntza hori, gainera, industri sektorearen batez bestekoa baino nabarmen handiagoa izan zen.

Industriako aldagai nagusienak. Euskal Autonomia Erkidegoa

Uneko prezioak	Balioa: €ak, milakotan		
	Industria		
	2003	2004	Δ%
Landunak	248.922	251.179	0,9
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	13.371.649	14.588.107	9,1
Ustiapeneko soberakin gordina	5.563.149	6.274.029	12,8
Egindako inbertsioak	2.717.879	2.515.852	-7,4
Amortizazioak	2.158.152	2.390.008	10,7
Negozio-zifrak	43.768.410	48.205.587	10,1
Bestelako sarrerak	1.909.499	2.324.795	21,7
Ustiapen-kontsumoak	23.975.359	26.996.408	12,6
Kanpo-zerbitzuak	6.153.960	6.593.298	7,1
Lagileria-gastuak	7.808.500	8.314.078	6,5
Bestelako gastuak	2.010.905	1.827.302	-9,1
Zergen aurreko emaitzak	2.904.928	3.767.225	29,7
Cash-Flow-a	5.063.080	6.157.233	21,6

Iturria: Eustat

- 2003. urtean gertatu zen bezala 2004. urtean inbertsioa uzkuritu egin zen, baina oraingoan pixka bat gutxiago (%-7,4).
- Inbertsio gehien egin zuten sektoreen artean (inbertitzeko ahalegina 2004an) honakoak izan ziren azpimarragarrienak: elikaduraren industria, papera, edizioa eta arte grafikoak, zuraren industria eta kautxua eta plastikoa.
- Zerga aurreko emaitzak %29,7 gehitu ziren 2004. urtean. Hain zuzen ere, honakoak izan ziren nagusi: elikaduraren industria (%67,4), metalurgia eta gai metalikoak (%52,4) eta garraio-materiala (%35,9). Lau sektoreen (zuraren industria, beste manufaktura batzuk, industria ez metalikoa eta mineral metaliko eta ez metalikoak) zerga aurreko emaitzak murriztu egin ziren, 2003. urtearen aldean.
- Industri sektore osoaren Cash-flowa %21,6 gehitu zen, hau da, modernizatzeko beharrei aurre egiteko bitarteko gero eta gehiago agertu dira. Hemen ere, sektore dinamikoenak energia eta metalurgia izan dira.

Lurraldeka, 2004. urtean Arabak izan zuen industriako balio erantsi gordinaren gehikuntzarik handiena (%15,2). Urteko hazkunde handien rankingean bigarren postua Bizkaiak dauka (%8,2) eta hirugarrena Gipuzkoak (%6,8). Hiru lurraldeetan, 2004. urtean eman zen azken lau urteetako hazkunde-tasarik handiena.

Eraikuntzaren sektorea %10,3 hazi zen 2004. urtean

Eraikuntzaren sektoreak %10,3ko hazkunde nominala izan zuen eta, horrez gain, bere balio erantsiaren hazkunde-tasek ere altuak izaten jarraitu zuten. 2002. urtean %10,3ko hazkundera izan zuen sektoreak, 2003. urtean %16,7koa eta 2004. urtean berriz %10,3koa.

Eraikuntzako aldagai nagusienak. Euskal Autonomia Erkidegoa

Uneko prezioak	Balioa: €ak, milakotan		
	Eraikuntza		
	2003	2004	Δ%
Landunak	86.353	90.774	5,1
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	3.761.313	4.147.094	10,3
Ustiapeneko soberakin gordina	1.288.112	1.454.840	12,9
Egindako inbertsioak	319.864	382.707	19,6
Amortizazioak	199.841	213.796	7,0
Negozio-zifrak	12.346.369	13.135.946	6,4
Bestelako sarrerak	502.186	1.571.267	212,9
Ustiapen-kontsumoak	7.483.489	8.661.763	15,7
Kanpo-zerbitzuak	1.315.450	1.436.695	9,2
Lagileria-gastuak	2.473.201	2.692.254	8,9
Bestelako gastuak	307.667	365.738	18,9
Zergen aurreko emaitzak	930.985	1.094.497	17,6
Cash-Flow-a	1.130.826	1.308.293	15,7

Iturria: Eustat

Sektore honetan langileen bilakaera %6,5ekoa (positiboa) izan zen 2003. urtean; urtebete igaro ondoren berriz hazi zen, %5,1. Izan ere, 2004. urtean 90.774 okupatu izan ziren eta 4.000 enplegu berri baino gehiago sortu ziren.

Eraikuntzak 2004. urtean izan zuen portaeraren barruan beste alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Ustiapeneko soberakin gordina %12,9 gehitu zen 2004. urtean.
- Zerga aurreko emaitzek gehikuntza handia izan zuten, %17,6koa; eta emaitzen bilakaera positiboaren ondorioz Cash-flowa %15,7 gehitu zen.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tel:+34-945-01 75 09 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>